

Ramon Zabala Arruabarrena Sanders
Elgeta, Gipuzkoa
(1929-2011)

Aurkibidea

Biografia



Elgetako Lapurdi baserrian
jaiotakoa; gerora kalean bizi
izana. Eibarren ikasi eta lan egin
zuen 35 urte inguru zituen arte.
Horren ondoren, pentsuak
saltzen jardun zen.

Zintak

ELG-009

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Elgeta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2005-01-18
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Sarasua Aranberri, Asier
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Elgetar gazteak Eibarrera lanera

- **Erref:** ELG-009/002
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:00:45. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

1944. Urtean joan zen lanera Eibarrera, ABCra "Euzkiñera" (Arizaga). Mutiko zela joan zen beharrera Eibarrera, 15 urterekin. Nahiko arrunta zen Elgetako mutil gazteen artean. Armeria Eskolak izen handia zeukan, eta gazte asko joaten ziren bertara ikastera, gauez. Egunez lan egin, eta gauez eskolara (17:30-19:30). Normalean, gazte horiek apopilo geratzen ziren Eibarko etxeetan.

Transkripzioa

- Eta hamen bertan?
- Bai, bai, hamen jaio ta hamen... Karo, horretxek hogeit urtiok Eibarren ein jittuat edo ein najittuan. Hemeretzi edo... "El año... el año cuarenta y cuatro" juan nitzuan Eibarrera, "Euzkiñera" biharrera. "Euzki", ABC?
- ABC.
- Isasixan jakan orduan.
- Arizaga.
- "Arizaga, Bastarrika y compañía". Bai. Orduan jaukan Isasixan. Jauan separau barri Carreras-ekin. "Miguel Carrera y compañía", gero Vitorixara fan zuan ha enpresia. Ta koñatuak edo ixan bihar juen, ta apartau ein zan. Ta gero "Euzkik", itxuria, Isasixan ifini juan. Ta Carreras-ek zerian jakan, han, Karmelita inguru...
- Txontan edo...?
- Txontan ez, ez, ez. Urkusuan.
- Urkusuan?
- Urkusuan jaukan harek. Bai. Ta gero ha, ez jakixat, bizkor fan zuan. Gero pasau zuan zerera, Otaola-erdikora. "Imperial" edo... ta "Miguel Carrera" ta zittuan han taillarrak kamiñuan ta errekan bittarte, bittartian. Gero handik Vitorixara fan zuan Carrera; ta "Euzki", ba, Eibarren.
- Eta zelan juan ziñan zu hara biharrera?
- Apendiz, mutikua.
- Hamabost urte?
- Hamabost urtekin. Mutikua, aprendiz.

- Orduan Elgetatik jende asko jeisten zan Eibarrera?

- Bai, bai.

- Gerra ostian...?

- Bai, ta gero ofiziuia ikester a gu hamendik mutil-gazte mordua, mutiko edo mutil-gazte esaten dana. Batzuk, ba... Eibarrek gauza bat edarra euki dabena dok Eskola Armerixia. Ta hamendik, ba, dirua eukena edo ahal ebanak-edo Eskola Armerixara batzuk. Ta gu, ba, Eskola Armerixan gabaz ibili nitzuan ni. Hiru urte ixaten zuan. Ta Eskola Armerixan gabaz ibilittakua nok ni.

- Eta Eibar inguruko mordua ibiltzen zian orduan, ez? Elgetarrak eta Elgoibartarrak eta...

- Elgoibartik be asko zerera, Eskola Armerixara, gaba... bueno, gabaz esaten zana, bost eta erdi... edo... seiretatik zortziretara. Ordu bi.

- Biharretik urten ta...

- Bai, bai, bai, bai. Ta gu be... Eibarren astioi han pasatzen giñuan apopillo.

- A, bai? Aste guztia bertan?

- Bai, guk bai. Batzuk etorten zittuan etxera, baiña ba! Aittak edo... Eskola pixkat edo ta han apopillo ta han emon gendun denporioi.

2. Leonen autobusa: Elgeta-Eibar

- **Erref:** ELG-009/003
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:03:45. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Egunero autobusa izaten zen Elgeta-Eibar artean. Goizean jaisteko, eta arratsaldean igotzeko. Ostegun eta larunbatetan gehiago. Eguenetan baile izaten zen udan. Beraiek Ongietorri tabernan elkartzen ziren, eta gero dantzara

Transkripzioa

- Bestela, egunero Eibartik hona igotzia...

- "Leon"-ekin orduan; autobusa: Leon Olabarria. Autobusak ezautuko dittuk, ba? Ba, [bajatu han]. Goixian zortzi ta larenak ingururako lletzen zuan hara ta gabian han [...] zortziretan urten gora. Hori. Gero eguenetan bajatu atsaldeko lauretan eitten zuan. Eguenetan ta zapatutan. Ta zapatutan bi autobus ifintzen jittuan. Karo, Eibarren be mordua astia pasatzen giñuanak, ta ba! hemen etorten giñuazen.

- Eta eguenetan zegaittik izaten zan?

- Ba, berak eguna, eguna ifinita aste erdixan. Ba, atsaldian jentia errekauek eittera edo...

- Zeoze espeziala egoten zan Eibarren eguenetan?

- Ez, denda batera edo ferreterixara edo ze esango dou, ba?

- Udan-edo bailia ez zan izaten eguenetan edo?

- Neguan. E... udan.

- Udan?

- Udan San Juanetatik Arratiak arte Eibarren.

- Eguenetan?

- Eguenetan.

- Ta gero gu, ba, ez jakixat zer esan... Hoge bat urte edo ein [genduzenian,] artetan eskolan ta, badakik, beti... ta zerian, dozena bat

mutil gazte juntauko giñuazen gu, ba, han, Ongietorri edo... Lehelengo Ongietorrixa genkan eguenetan. Ta han, ba, partidatxua ein lehelengo ta gero Untzagara. Han hamabixetan bailia akabatzen zuan ta bakoitza bere etxetara eitten giñuan.

3. Ardo "txikitoa" baino, "baso haundixa" zen ohitura

- **Erref:** ELG-009/004
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Taberna giroa
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Udan dantzara joaten ziren, eta neguan frontoira. Txikiteoa ere asko izaten zen; tailerretik irten, eta 21:00 arte tabernetara. Eibarren ohitura handia zen "baso haundixa" hartzeko (txikiteoa baino, jarrita, baso haundia hartuz). Eta ugazabak eta beharginak, denak elkarrekin. Beraiek ere taberna jakinak izaten zituzten, eta baso haundia hartuz, jarrita.</p>

Transkripzioa

- Ta, orduan, zuen plana eguenetan horixe zan?
- Bai, bai, bai, bai. Bueno... biharra-edo [bihar dan] moduan, ta gero hamabixetan lehen esan dana. Ta neguan frontoira.
- Frontoira?
- Bai. Arratietan. Eguen gabian, hamarretan, pelotia Astelehenan. Pelota partiduak. Ta gallinerora.
- Gora?
- Ba, ba... diruan zerak, gauzak. Ta, ba, gallineruan egoten giñuazen. Ta... orduan han goixan —gallinerua esaten gontsan— diru asko eskutik eskura jokatzen zuan, korredoriekin barik. Bueno...! Jentia bost durokua ta... Bost durokua haundixa zuan, e, jokatzeko be! Banaka batzuk bai, Pako Frantsesak eta bai jokatzen juen. Biziko dok...
- A, ez dot ezautzen.
- Pako Frantsesa, bai, nere edade ingurukua dok ha. Biziko dok. Berak be pelotan asko eitten juan, e!
- Sasoi horretan diru asko egongo zan Eibarren, ez? Hor...
- Karo, ordu asko biharra! Hamar ordu gitxien eitten ebanak. Gutxien. Zortzi ordukorik ez jeuan; hamar ordu. Ta harek ordu bixak extra, pixkat ez bada be, extra. Ta jentia, ba, ze esango deuat, ba? Askok Eibarren dirua jabillan. Ta zazpi terdiak arte biharra ein ta eskuak garbitzeko asti barik teillarretik orduan. Ta tabernetara juan ta txikiteua edo... Eibarren ohitura asko jeuan baso haundixian erateko. Baso haundixian. Ogi zati bat edo gazta punta bat edo zeozekin. Bai.
- Txikitua baiño, baso haundixa?
- Bai. Behin edadian pixkat —ez jakixat, ba, nik— berrogei bat urtera edo hogeta hamarretik gora edo, jarritta jente asko. Uezaba ta bihargiña. Kontu, e!
- Bai, e?
- Bai, bai, bai. Han ez jeuan distinziñorik taillarreti urtendakuan.
- Eta hori espeziala zan? Eibarren bakarrik gertatzen zan edo Bergaran edo...?

- Bergaran be egongo zian. Karo, guk Eibarko barri ikasi giñuan. Ta ikusi. Geu be, ba, apopillo. Ta zazpi terdietan taillerretik urten ta, ba, zortzi terdiak edo bederatzirak arte tabernan. Ta geu be... txikiteuan nekez eitten giñuan geuk be. Taberna [hartuak]: lehelengo Txokuan hasiko giñuazen, gero Valentiñanian. Valentiñana plaza aurrian jauan. Bueno, nik ezautu najuan Bidebarrixetan be bai. Baiña plazia barrixa ein zanian, haintxe plaza aurrian ifini juan tabernia. Ta ohittuta jeuan lehen... Bidebarrixetatik entradia jakan harek, Muñoaneko dendian ingurutik. Ta plazia behian ta berak tabernia goixan. Ta plazako jente dana, ba, kafietesnia edo orduan usatzen zana hartzera androk edo gizonok edo danak etorten zittuan. Ta gero plaza aurrera pasau zuan. Oin ez [jakixat] caja de ahorros-en bat edo bankun bat edo zer daon Valentiñanian. Oin... Bai. Ta guk urtiak ein giñuazen han. Ba, hantxe. Geuk be baso haundixoi edo... Ba!

- Zuek be ohittura hori hartu zenduen?

- Karo, txikituori, ba, ezpanak busti orduko husten zuan ta...

- Asko ibili bihar...

- Ibili ta... Ba! Hantxe jarritta jokuan ein... Ta afaltzeko ordua allegatzen zanian, etxera.

- Ta Elgetako jende asko egongo zan holan...?

- Gu... Elgeta, Angiozar... gero Oñati aldekon bat be... basarrrittarrak. Ta gu dozena bat lagun inguru egoten giñuazen kuadrillan.

4. 1950 inguruko pilotari onenak

- **Erref:** ELG-009/006
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Arriaran anaiak, Zurdo de Mondragon, Kortabitarte, Larrañaga... Pilotari onak izan ziren sasoi haretan. Atano III eta Atano VII ere sarri izaten ziren Eibarren. Zaletasun handia zegoen pilotarako. Elgetan, oster, zaletasuna bai, baina pilotari onik ez da izan, Arantzeta eta Elgoro agertu arte.

5. Elgetako baserri gehienak desagertuta

- **Erref:** ELG-009/008
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:15:45. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Elgetan baserri mundua erabat aldatu da. Lehen orain baino jende gehiago bizi zen Elgetan. Baserri guztiak erdi hutsuta daude. Elgetatik Eitzagara bidean bakarrik, 15 baserri inguru desagertu dira. Beraien baserria, Lapurdi, ez zen Aixolaerreka auzokoa, baina hartu-eman handia zuten. Eibarrerako bide zaharra, beraientzat, Eitzagatik zen.

6. Baserriko umeak beti lanean

- **Erref:** ELG-009/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:23:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Astebarruan eskolara joaten zen, umetan, baina larunbatetan astua hartu eta Eibarrera joaten zen esne partitzen. Behin oinez ikasiz gero, beti baserrian laguntzen "ondo hezita".

7. Baserriko bizimodua gogorra zen

- **Erref:** ELG-009/011
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:23:10. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Zazpi anai-arreba, gurasoak eta amandrea bizi ziren bertan. Osaba bat ere bai. Baserri gehienetan 10 lagun inguru bizi izaten ziren. Hamabost urterekin Eibarrera joan zen lanera, eta zortea izan zuen. Baina Eibarren ere bizimodu gogorra izan zuen.

8. Jaiegunak Elgetan: dantza eta boleta

- **Erref:** ELG-009/012
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:30:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Asteburuetan Elgetan erromeria izaten zen. Horixe zen beraien denbora-pasa. Txikitoen bat hartu, eta dantza egin. Erromeria ona izaten zen beti, eta jende ugari, ingurukoetako guztiak bertaratzeko ziren. Gramolia eta txistularia izaten ziren. Txistularia elgetarra zen "Epi". Boleta ere izaten zen. Zaletasun handia zen Elgetan. Bolalekua ere ezaguna eta ona zen. Beste auzo batzuetan ere izaten ziren. Garizuman txirikiletan egitera joaten ziren Intxorta ingurura. Garizuman ez zen dantzarik eta holakorik izaten. Ezkontzarik ere ez zen izaten.</p>

9. Garizumako debekuak

- **Erref:** ELG-009/013
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

<p>Garizuman dena egoten zen debekatuta: dantzan egitea, ezkontzea, idiak uztartzea (Bariku Santuan)... Kanpairik ere ez zen jotzen Bariku Santuan. Mezetako orduan matrakak jotzen zituzten, sakristauak aginduta. Gero, Zapatu Santuan, ur eta su bedeinkatua banatu, eta gero kanpaiak jotzen ziren berriro. Karnabal egunean izaten zen azkenengo erromeria, eta Zapatu Santuan hasten ziren berriro.</p>

10. Ur bedeinkatua eta su bedeinkatua

- **Erref:** ELG-009/014
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:36:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Zapatu Santuan sua eta ura bedeinkatu eta banatzen zituzten. Elizan bedeinkatu egiten zuten. Norberak ilua eramanez, egur ihartua, horri su eman, eta baserrikerik baserri banatzen zuten. Sua elizan bertan izaten zuten, ontzi ederrean. Ur bedeinkatua etxera eramaten zuten etxeko andreak. Ur bedeinkatu hori erabiltzen zen gero baserriko lurrak bedeinkatzeko, "konfurua" egiteko.</p>

11. Sorginak Elgetan

- **Erref:** ELG-009/015
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:36:40. **Bukatu:** 00:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Aitajaunaren sasoian sorginen kontuak esaten zituzten, baina Eibarren pistolak egiten hasi zirenean desagertu ziren. Sorginak lapurrek ez ziren. Anbotoko Señoriaren berri ere entzun zuen txikitan.</p>

12. Baserrietan lapurrek izaten ziren

- **Erref:** ELG-009/017

- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Berrio auzoan izandako gertaera bat. Lapurren kontuak. Berak ere ezagutu zituen. Baratzetatik jeneroa lapurtu, edo ardiren bat...

13. Erromeriak, aguazila, "agarrauak" eta neska-laguntzak

- **Erref:** ELG-009/018
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:45:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Auzoetan ere erromeriak izaten ziren. Asentsion handia izaten zen. Herriak aguazila bidaltzen zuen, eta berak esaten zuen noiz amaitu behar zen erromeria. Orduan, dantza-piezako kobratzen zen. Dantza eginez gero, kobradoreak txakur handia jasotzen zuen. Elgetan "agarraua" ere egiten zen. Erromeriak izaten ziren neska-laguna aurkitzeko tokirik aproposena. Ezkontza gehienak erromerietan egiten ziren. Eta erromeria ostean neska-laguntza. Ezkutuan, baina lehen ere oraingo kontu berberak, patxoak eta zirriak.

14. Elgeta inguruko auzoetako erromeriak eta jaiak

- **Erref:** ELG-009/019
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:45:40. **Bukatu:** 00:50:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Arraten eta Elorrión ere erromeriak izaten ziren. Auzoetan ere erromeriak izaten ziren. Uberan San Paulo (urtarrilaren 25ean); gero Asentzio. San Bartolome, abuztuan. Angiozarren San Martinak eta San Bizente. Larrabiltzearra bailarako jaiak San Roke (abuztuan). Andra Mari egunean Bergarako musika-banda izaten zen plazan, eta San Roke egunean Eibarko musika-banda. Azurtzan ere erromeria ona izaten zen Santiago egunean. Erromerien indarra 1960 inguruan hasi zen galtzen.</p>

15. Gerra zibilean nazionalak Elgetara sartu zirenekoa

- **Erref:** ELG-009/020
- **Iraupena:** 0:07:35. **Hasi:** 00:50:20. **Bukatu:** 00:57:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaian, zazpi urte zituen, baina ondo gogoratzen du. Etxe ondoan hiru bonba jausi ziren. Elgetan frontea zegoen: Bergaran nazionalak eta Intxortan milizianoak. Baserritarrak milizianoei laguntzen aritu ziren, gurdiekin materiala garraiatuz. Beraien baserriko ganadua Zaldibarrera eraman zuten gerratean.

16. Nazionalen erailketak Elgetan

- **Erref:** ELG-009/022
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:00:20. **Bukatu:** 01:02:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Nazionalekin batera, moroak sartu ziren Elgetara, eta sekulako triskantza egin zuten. Hiru lagun ere hil zituzten. Gerra baino txarragoa ondorena izan zen, ondorengo mendekuak eta ikusiezinak.

17. Gerra aurretik, karlistak nagusi Elgetan

- **Erref:** ELG-009/023
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 01:02:05. **Bukatu:** 01:05:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:

Gerra aurretik karlistak ziren nagusi Elgetan. Baserritar handienak karlistak ziren. Sozialistak eta errepublikazaleak apur batzuk besterik ez. Nazionalistak gehiago. Lehengo sozialistak, baina, finak ziren, "behar den moduko euskaldunak".

18. Elgetako tabernak: Ostatua, Panaderokua, Martintxona

- **Erref:** ELG-009/026
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:10:05. **Bukatu:** 01:12:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Elgetan lehen beste taberna batzuk zeuden. Lehengo bakarrak "Ostatua" eta "Panaderokua" dira. Lehengo ezagun-ezagun bat "Martintxona" zan, Donostian eta Bilbon ere ezaguna.

19. Eibarko "beraneanteak" Elgetan

- **Erref:** ELG-009/028
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:13:05. **Bukatu:** 01:15:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Eibartar asko etortzen zen Elgetara uda pasatzera, "beraneanteak". Andreak eta umeak igotzen ziren; gizonak beharrean. Sabado inglesa ere berandu ezagutu zuten; normalean, larunbat guztian lan, goiz eta arratsalde.

20. Elgetako euskara eta ingurukoak

- **Erref:** ELG-009/029
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 01:15:45. **Bukatu:** 01:19:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Elgetako euskara eta ingurukoak erraz bereizten dira. Berriokoa (Elorrio) eta Uberakoa (Bergara) erraz bereizten da. Angiozarkoa are ezberdinagoa da. Elgetako euskarak Eibarkoa dauka hurren, batez ere goi parteko baserrietako euskarak (Goimendi, Larrebiltzearra, Aixola...). Elgetan bertan ere, gazteek oso diferente egiten dute "artifizial". Euren aurrekoek ere ezberdin egiten zuten, askoz hobeto.

21. Elgetan ez zen erdararik entzuten

- **Erref:** ELG-009/030
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:19:55. **Bukatu:** 01:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Elgetan euren gazte denporan ez zen erdararik entzuten. "Dotriña" bakarrik egiten zuten erdaraz.

22. Elgetako fraideen eskola

- **Erref:** ELG-009/031
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:21:20. **Bukatu:** 01:22:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan fraideetan egon zen. 1937an udaletxean, baina gero fraideetan. Maisu gogorrak ziren, baina onak.</p>

23. Nagusiei eta emakumeei, beti "zuka"

- **Erref:** ELG-009/032
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:22:40. **Bukatu:** 01:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Lagunen artean "hika" egiten zen, baina nagusiei eta emakumeei beti "zuka". Hamar bat urte nagusiagoak zirenei, beti "zuka". Eta abadeei, "berorika". Bere emazteak, gurasoei ere "berorika" egiten zien.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com